

Ostegunean egingo dira Eskoriatzako campusean unibertsitate masterren gaineko azken informazio saioak


2015/06/16

Ekainaren 18an, ostegunez, hezkuntza arloko unibertsitate masterren eskaintza azaltzeko informazio saio egingo dute **Eskoriatzako campusean**. Arratsaldeko **18:00etan** hasiko diren informazio saioetan, aurrez aurre aurkeztuko dira Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, hezkuntza arloan, dituen unibertsitate masterrak

Egun, hiru dira fakultateak eskaintzen dituen unibertsitate masterrak:

1. Berrikuntza didaktiko metodologikoko proiektuen garapena eta kudeaketa hezkuntza erakundeetan unibertsitate masterra (Berrimet). Master hau euskaraz edo gazteleraz egin daiteke eta %100 *online* da.
2. Hezkuntza testuinguru multikultural eta eleaniztunetan unibertsitate masterra (Ekomu). Master hau euskaraz edo gazteleraz egin daiteke eta %100 *online* da.
3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketan eta Hizkuntzen Irakaskuntzan irakasle gisa aritzeko gaitzen duen unibertsitate masterra (BHM). Master presentziala da, eskolak arratsaldez izaten dira.

Informazio saioa irekiak dira baina interesatuek, **aldez aurretik, izena eman beharko dute** www.mondragon.edu/unibertsitatemasterrak webgunean.



Arratsaldeko 18:00etan hasiko dira informazio saioak.